

# **2016ko uztailaren 29ko 466 LI/2016 FORU AGINDUA, Gipuzkoako Lurren Funtsean dauden ondasun edo eskubideak lagatzeagatik 2016. urterako aplikatu beharreko gehienezko prezio tipoak ezartzen dituen.**

**(2016ko abuztuaren 16ko, 155 zk.ko GAO)**

## **OHARRA**

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

2013ko martxoaren 5eko 10/2013 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa arautzen duenak, 21. artikulua 3 atalean ezarritakoari jarraituz, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuak ezarriko ditu Gipuzkoako Lurren Funtsean dauden ondasun edo eskubideak lagatzeagatik aplikatu beharreko gehienezko prezio tipoak, Prezioen eta Balioen Batzorde Teknikoak urte horretako ezarriko diren prezioei buruz egindako txostena eman ondoren.

2016ko martxoaren 1ean, Batzordea bildu ondoren, 2016. urteari buruzko prezio tipoen txostena eman du.

Horrenbestez, Prezioen eta Balioen Batzorde Teknikoak egindako proposamenarekin adostasunean, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuko foru diputatu honek honako hau

## ***XEDATZEN DU***

***Artikulu bakarra.*** Aplikatu beharreko gehienezko prezio tipoak ezartzen dira, Gipuzkoako Nekazaritza Lurren Funtsean dauden ondasun edo eskubideak lagatzeagatik 2016. urterako eta foru agindu honekin doan eranskinean agertzen direnak.

### ***Amaierako xedapena.***

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

## ERANSKINA

### PREZIOEN ETA BALIOEN BATZORDE TEKNIKOA 2016. URTERAKO ALOKAIRU, BAIMENTZE ETA EMAKIDEN GEHIENEZKO PREZIOAK

— Laboreak: Barazkiak, fruta-arbolak eta mahastiak.

Gehienez onartutako prezioa: 500 euro urteko eta hektareako.

Koefiziente zuzentzaileak:

<i>Sailaren bataz besteko aldapa</i>		<i>Koefizientea</i>
A≤%15		1,0
%15<A≤%30		0,8
<i>Orientazio nagusia</i>		<i>Koefizientea</i>
Hegoa		1,0
Iparra		0,8
<i>Iristeko bidea</i>		<i>Koefizientea</i>
Ibilgailu guztientzako sarbidea		1,0
Traktoreentzako sarbidea		0,8
Ibilgailuentzako sarbiderik gabe		0,5
<i>Urik duen edo ez</i>		<i>Koefizientea</i>
Ura badu		1,0
Urik ez		0,8
<i>Itxiturak</i>		<i>Koefizientea</i>
Itxitura badu		1,0
Itxitura ez badu		0,8

— Laboreak: Belardiak, larreak eta bazkak /

Gehienez onartutako prezioa: 250 euro urteko eta hektareako.

Koefiziente zuzentzaileak:

<i>Sailaren bataz besteko aldapa</i>		<i>Koefizientea</i>
A≤%15		1,0
%15<A≤%25		0,8
A>%25 eta mendiko larreak		0,5
<i>Orientazio nagusia</i>		<i>Koefizientea</i>
Hegoa		1,0
Iparra		0,8
<i>Iristeko bidea</i>		<i>Koefizientea</i>
Ibilgailu guztientzako sarbidea		1,0
Traktoreentzako sarbidea		0,8
Ibilgailuentzako sarbiderik gabe		0,5
<i>Urik duen edo ez</i>		<i>Koefizientea</i>
Ura badu		1,0
Urik ez		0,8
<i>Itxiturak</i>		<i>Koefiziente</i>
Itxitura badu		1,0
Itxitura ez badu		0,8